

Gizonen eta emakumeen osasuna



- ❑ Sintoma berberak al dituzte gizonek eta emakumeek gaixotasunen aurrean?
- ❑ Gaitzen aurrean sexuak eragina duela uste al duzu?

Galdera horien erantzuna jarraian ikusiko duzun bideoan aurkituko duzu.



Ikusi bideoa eta ondoren aukeratu bideoaren araberako erantzun egokia hutsuneetan.



CÁTEDRA
DE CULTURA
CIENTÍFICA
KULTURA
ZIENTIFIKOKO
KATEDRA

<https://labur.eus/2SMw0>



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Kultura
Zientifikoko Katedra
Cátedra
Cultura Científica



Horra hor Tere eta Pablo. Biek ala biek ____1____ dirudite. Begira Pablori: min du ezkerreko besoan, ____2____ dago, arnasestuka, eta min handia du ____3____. Honez gero badakizu diagnostikoa, ezta?, bihotzekoak eman dio.

Orain begira diezaiogun Tereri. ____4____ txikia du sabelean, haizeak izango balitu bezala. Itolarria du eta ____5____. Gainera, ____6____ mina dauka eta min bitxi bat masailezurrean. Zure ustez, zer gertatzen zaio? Neuk esango dizut. Tereri ere ____7____ eman dio.

Harrigarria, ezta? Ba hau adibide bat baino ez da erakusteko genero-desberdintasuna oso kontuan izan behar dugula ____8____ baten sintomak baloratzeko orduan.

2009an animalia-esperimentazio faseko ____9____ kliniko gehienak arrekin bakarrik egiten ziren, eta hori arazo ____10____ da, orain bai baitakigu konposatu farmakologiko baten ____11____ desberdina izan daitekeela emakume izan edo gizon izan. Zorionez hau, beste hainbat kontu bezala, aldatzen ari da. Ea ba lehenbailehen aldatzen den eta bideo hau ____12____ gabe geratzen den oso denbora laburrean.

1) ondo-antzean ondoezik nekatuta	2) izerditan urduri zorabiatuta	3) buruan saihetsean bularrean	4) zuri min orban
5) gorabeherak goragalea gogortasuna	6) eztarriko eskumuturreko sabeleko	7) bihotzerreak bihotzekoak eguzki-kolpeak	8) heriotza gaixotasun nahigabe
9) sailkapen sorospen saiakuntza	10) halamoduzkoa bitxia larria	11) dosia osaketa eragina	12) norabiderik zentzurik konorterik

ERANTZUNAK

1. ondoezik
2. izerditan
3. bularrean
4. min
5. goragalea
6. eztarriko
7. bihotzekoak
8. gaixotasun
9. saiakuntza
10. larria
11. eragina
12. zentzurik

TRANSKRIPZIOA

Esataria. Euskal Herriko Unibertsitateko kultura zientifikoko katedran, *Maiz egiten diren galderak*.

Horra hor Tere eta Pablo. Biek ala biek ondoezik dirudite. Begira Pablori, min du ezkerreko besoan, izerditan dago, arnasestuka, eta min handia du bularrean. Honez gero badakizu diagnostikoa, ezta?, bihotzekoak eman dio.

Orain begira diezaiogun Tereri. Min txikia du sabelean, haizeak izango balitu bezala. Itolarria du eta goragalea. Gainera, eztarriko mina dauka eta min bitxi bat masailezurrean. Zure ustez, zer gertatzen zaio? Neuk esango dizut. Tereri ere bihotzekoak eman dio.

Harrigarria, ezta? Ba hau adibide bat baino ez da erakusteko genero-desberdintasuna oso kontuan izan behar dugula gaixotasun baten sintomak baloratzeko orduan.

2009an animalia-esperimentazio faseko saiakuntza kliniko gehienak arreakin bakarrik egiten ziren, eta hori arazo larria da, orain bai baitakigu konposatu farmakologiko baten eragina desberdina izan daitekeela emakume izan edo gizon izan. Zorionez hau, beste hainbat kontu bezala, aldatzen ari da. Ea ba lehenbailehen aldatzen den eta bideo hau zentzurik gabe geratzen den oso denbora laburrean.